


Alemayehu printzearen tristura



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Abisiniak, 1868. Britainiar ejertzitoak afrikar inperioa eraso zuen, Teodoro II.a enperadoreak zigortzeko eta, bide batez, Europako beste potentzien aurrean indar erakustaldia egiteko. Britainiarrek Magdala hiria sarraskitu eta espoliatu zuten. Teodoro enperadoreak bere buruaz beste egin zuen, baina britainiarrek Tiruwork Wube enperatriza eta haren seme Alemayehu printzea bahitu eta Britainia Handira eraman zituzten, Abisiniako ondarearen zati handi batekin batera. Enperatriza bidean hil zen. Printzeak zazpi urte zituen.

Viktoria erreginak mutikoaren begitarte malenkoniatsua nabarmendu zuen ezagutu zuenean. Tristam Speedy kapitainaren esku utzi zuen haren heziketa. Speedyk munduan zehar bidaiatu zuen mutikoarekin batera, maskota bat bailitzan ia. Hurrena, errege familiak printze afrikarrak heziketa formala jaso behar zuela erabaki zuen. Errugbi eskola pribatuan sartu zuten lehenik eta, gero, Sandhursteko akademia militarrean; bietan jazarpen bortitza jasan behar izan zuen Alemayehuk.

18 urte bete zituenean, errege familiaren mantenua galdu zuen eta Leedsera eraman zuten, Arthur Ransome doktorearen etxera. Handik gutxira hil zen, pleuresiak jota.

“Hain da tristea! Bakarrrik, herrialde arrotz batean, seniderik gabe. Ez zuen



VICTORIA AND ALBERT MUSEUM

Abisiniako Alemayehu printzea, Britainia Handira iritsi berritan. Aurpegiera triste bera dauka hil artean atera zizkioten gainerako argazkietan ere.

bizitza zoriontsua izan. Hain zen sentibera, beti pentsatzen zuen jendeak gaizki begiratzen ziola bere azalaren koloreagatik”, idatzi zuen Viktoria erreginak bere egunerokoan, printzearen zorigaitzean inolako erantzukizunik ez balu bezala, eta jasandako erasoak mutikoaren irudipena balira bezala.

Alemayehu Windsor gazteluan ehortzi zuten, baina ez errege kriptan, aldame-neko katakunbetan baizik. Karlos III.a

errege koroatu berriak iragan kolonialista erreparatzeko asmo onak, hitzez behintzat, adierazi izana baliatu dute Alemayehuren familiaren oinordekoek eta Etiopiako ordezkariak enegarren aldiz eskatzeko printzearen arrastoak jaioterriara itzul ditzaten. Eta enegarren aldiz, eskaera ukatu diete, “hildakoen duintasuna zaintzeko erantzukizuna” argudiatuz; “soilik hildako batzuen duintasuna” ñabardura egitea ahaztu zaie. ●



Esklabo jabeen oinordekoak boterean

Reuters agentziak argitaratu berri duen ikerlan baten arabera, AEBetako politikari asko esklabo jabeen oinordekoak dira; 100dik gora kongresukidek eta gutxienez Auzitegi Goreneko bi kidek arbazo esklabistak dituzte. Horieta da Julia Brownley Kaliforniako kongresukide demokrata. Familiaren iragan esklabistaren berri izateak sakonki eragin

diola adierazi du, baina funtsezkoa dela iragan horren aitortza egitea. Ikerlanean parte hartu duten adituen helburua ez da inor pertsonalki seinalatzea, baina esklabotzak oraindik egungo politikan duen eragina nabarmendu dute: AEBetako Kongresuan ere badira esklaboen oinordeko bakan batzuk, baina esklabo jabeen oinordekoak baino askoz gutxiago dira. ●